

## Lau enkontru Laboarekin

Jaio nintzen hirian euskaldunei, euskaraz egiten zutenei, los vascos esaten genien. Hala esaten die oraindik ere gure amak, ni naizen bere semea horietariko bat izan arren aspalditxotik. Badakite, jakin. Nire sorterrria ostera, ez dago gure mugetatik kanpo. Euskadi deritzoten horren hiriburua duzu sorterrria.

Haur nintzelarik, orain baino bakanagoetan entzun zitekeen euskaldunon hizkuntza Gasteizen. Arrasatetik-eta erosketak egitera etortzen ziren etxeko andreana izango zen nik entzundako estreinako euskara. Halako irudipena daukat behintzat. Hala ere, zer aditzen ari nintzen jakinaren gainean egonda, irratiko kantuen izan zen neure lehendabiziko euskara.

Oso berandu sartu zen telebista gurean. Senide eta auzokoek sukalde edo egongelako iluna argi urdinez pitzatzen zuen tramankuluari begirik kentzen ez zioten bitartean, belarriak zorrozten genituen guk, sukaldeko apaletariko batean kokaturik zegoen zurezko kutxa moduko zera handi hari zerionari adi. Lanegunetan, orduan zegoen albistegi bakarra entzuteko astirik izan ohi genuen ozta-ozta. Igandeetan aldiz, bazkari sasoiari beste patxadarik izaten genuen. Berandu antzera ma-

hairatzen ginen eta, hiruetan, artean asteko bazkaririk gozoe-  
na gozaten ari ginelarik, Fiesta Vasca-Euskal Jaia zeritzan  
saioa hasi ohi zen Radio Vitoria-n. Garaiko euskal diskoak  
ipintzen zituzten: otxoteak, abeslariak.

Igandeko bazkari gogoangarri haietan ezagutu nuen Mikel,  
han topatu nuen lehendabizikoz. Berea zen, inolako zalantza-  
rik gabe, igandero etxeratzen zitzaizkigunen artean ahotsik  
nabarmenena, ozenena eta guztietan erakargarriena, zer zioen  
jakin barik ere.

Gure bigarren enkontrua urte batzuk geroago izan zen,  
hautzaroa atzean utzirik, nerabezaroaren urte ilun sose-  
gubakoetan sarturik nengoela. Gorbeia aldean izan zen, Mai-  
rulegorretan, haitzulo horietan egiten ziren kantaldi haietako  
batean. Kantaldiak ez ezik, haiek manifestazioak ere baziren,  
bertara biltzen baitzen abertzale eta Errejimenaren aurkako  
asko, euren ideiak eta askatasun ametsak, behingoz baino ez  
bazen ere, arrisku handirik gabe adierazi ahal izateko leku  
apartatu hartaraino joateko beharturik.

Bezperan joan ginen eta su inguruan eman genuen gaua,  
kantuan, berbetan, zurrutean. Ezin gintuen loak hartu. Zere-  
gin ugari genuen-eta, argiak urratu orduko. Berandutu egin  
ginen ostera eta kobazulorako bidean gora barreiatu beharre-  
ko panfleto piloa zorroan geratu zitzaigun. Haiek aldean era-  
manda ezin Gasteizera bueltatu. Zer egin ez genekiela, bana-  
tu beharraz bat gentozen denok. Hortaz, leizezuloko sarrera-  
ren gaineko harkaitzetara igo eta handik behera bota geni-  
tuen. Benetan ederra zen ikuskizuna, ehundaka orrialde zuri,  
han behean bildutakoen gainean hegan, lagun guztiak beso  
luzeka haietariko bat harrapatu guran. Dena den, panfletoak  
zabaldurik uzteko arriskuari itzuri eginda, hark bezainbes-  
te kezkatzen gintuenik ere beguenen. Harrapaladan egin ge-  
nuen beherako bidea eta izerditan heldu ginen Mairulegorre-  
tako sarrerara. Jendetza zegoen. Ilera luzean, sartzeko irriki-  
tan denak. Itxura batean behintzat, kanpoan gelditu behar

genuen. Orduan agertu zen Mikel Laboa eta berarekin batera gure salbazioa. Ez genekien nor zen, baina eskuetan zeramatzan kitarrak ikusirik, kantaritzat jo genuen. Bere atzetik berriez, bere moduko beste batzuk begieman genituen. Haiengana joan behingoan, nirekin zetorren adiskidea eta bion artean txalapartaren oholetako bat hartu eta euren atzetik, haiengandik doi-doi zentimetro pareta utzita, aurrera egin genuen. Tokirik onena hartu genuen ordukoan eta jaialdiaz ederto gozatu. Ez dakit nork kantatu zuen egun hartan, gogoan dudan bakarra Mikel da. Bera eta kitarrajole laguna. Sekula ez zait ahaztuko, kitarra elektrikoaren nota luzeek (ezin nuen sinetsi, kitarra hari Hendrix idoloarenaren itxura hartzen nion!) eta Mikelen ahots zorrotzak haitzulo baino katedrala den hura zelan betetzen zuten. Zelan zihoazen paretaz pareta guregana heldu eta barru-barruraino sartzeko. Oilo ipurdia ipini ziguten. Gozotik zakarrera, malenkoniatik sentipenik bortitzenera aise zihoan ahotsak hunkitu eta bere egin ninduen betiko.

Mikelen diskoa bilatu nuen eta etenbarik aditu, buruz ikasteraino aditu, soilik adin horretan musika entzuten den grinaz. Arratsalde osoak eman izan ditut disko hura aditzen. Zumetaren irudi biziak gordetzen zuten hartan, misterioz eta edertasunez beteriko mundua idoro nuen. Ulertu ez arren, buruz ikasi nituen abestietako berbak. Kantuok piztutako jakinminari zor diot zelanbait darabilkidan hizkuntza honekiko grina. Artean ezezagun nuen hainbat lekuren mina nigan eragiteko gauza zen ahots hark zioena bere osoan gozatzeko desira. Behintzat hala pentsatzeko gogorik izan dut beti. Ez da batere gaitza. *Baztan* entzun, esate baterako, eta zelan inguru haiek miresteko gurariaz libratu? Oraindik entzuten dut lantzean behin eta urteek zigorturiko nere LP-ko zaratak Mikelen ahotsari nagusitzen saiatzen direla, CD-aren nostalgia jabetzen da nitaz. Segituan irtenen nintzateke kalera eta zabalik topaturiko lehen diskodendan sartuko. Eta aldizkari eta abarrekoetan sarritan azaldu ohi den galdera alua irakurrita

–zein disko eramanen zenuke uharte bakarti batera?– niri horixe eginez gero, *Bat-Hiru* aukeratuko nukeela erabakitzen dut nire kabutan.

Hirugarren enkontruraino heltzeko beste hainbat urte egin behar dut denboran aurrera, AC/DC taldeak Donostian estreinakoz jo zuen eguna arte.

Lagun kuadrilarekin furgoneta batean sartu, Donostiarainokoa egin, Belodromora iritsi eta bertan nor ikusiko eta Mikel bera hantxe. Ez zen makala izan gure harridura. Zer egiten zuen hark halako zera batean?

Pentsatzen ipinita, ez zen batere harrigarria Mikelen betiko jakingura eta gauza berriekiko irrika mugabakoa kontutan hartuz gero. Baina asaldaerazak ginen artean eta nahiko kokoloak. John Cagengandik Camaronganaino, Roy Hart eta Maurizia tarteko, bidaia egina zuen batentzat deus gutxi ziren Young anaiak.

Kontzertu aspergarria izan zen. Young gaztearen bakarraldi eternalek lur jota laga ninduten.

Aurrekoek ez bezala, laugarren enkontruak data zehatza du nire akorduan: 1989ko azaroa. Laugarren enkontrua diot eta agian lehendabizikoaz egin beharko nuke berba, ordura arte ez baiginen egundo izan Mikel eta biok buruz buru.

*Txerokee* diskoa egiteko asmoa generabilen aspalditxotik eta jakin genuenean bere azkena aurkeztera zihoala, hara joan gintzaizkion Mikel Camino eta biok egin asmo genuenaren berri ematera. Ezin hobeto hartu gintuen. Gurea onartu eta bazkaltzen geratzeko gonbitea egin zigun. Baietz, geratuko ginela. Ia ilunabarra arte luzatu zen bazkaria.

Handik aurrera, maiz topo egin dut Mikelekin. Mikelekin eta Maixolekin. Lagunarengan, bere kante bezainbeste liluratu nauen gizona idoro dut. Atera kontuak.

KABIER MONTOIA

## Cuatro encuentros con Laboa

En la ciudad donde yo nací, a los euskaldunes, a los que hablaban en euskara, les llamábamos *los vascos*. Así les llama aún mi madre, aunque yo, su hijo, sea hace tiempo uno de ellos. Bien sabían lo que decían. Y, sin embargo, no nací lejos de aquí. Nací en la que es capital de eso que llaman Euskadi.

Cuando yo era niño, la lengua de los vascos se escuchaba aún con menor frecuencia que ahora en Gasteiz. El primer euskara que oí fue el de las señoras de Arrasate y sus pueblos vecinos que acudían de compras a Gasteiz. Al menos, eso creo. Sin embargo, a sabiendas de lo que estaba escuchando, mi primer euskara fue el de las canciones de la radio.

La televisión entró muy tarde en nuestra casa. Mientras nuestros parientes y vecinos no apartaban los ojos de aquel trasto que con su luz azulada agrietaba la negrura de sus cocinas y salas de estar, nosotros aguzábamos el oído, atentos a lo que surgía de aquella cosa grande, de aquella especie de caja de madera colocada en una de las baldas de la cocina. Los días de labor apenas si teníamos tiempo de escuchar el único informativo que existía por aquel entonces. Pero los domingos, a la hora de comer, había otra tranquilidad. Nos sentábamos a la mesa bastante tarde, y, a las tres, mientras disfrutábamos de la mejor comida de toda la semana, empezaba en Radio Vitoria

el programa Fiesta Vasca-Euskal Jaia. Ponían los discos euskaldunes de la época: otxotes, cantantes.

Conocí a Mikel en una de aquellas comidas de los domingos; allí lo encontré por primera vez. Era la suya, sin duda alguna, la voz más original de todas las que llegaban los domingos a nuestra casa, la más sonora y, aunque no entendía lo que decía, la más seductora.

Nuestro segundo encuentro tuvo lugar unos años más tarde; la infancia había quedado atrás, y había entrado en los años oscuros, desasegados de la adolescencia. Fue por el Gorbea, en Mairulegorreta, en uno de aquellos festivales que se celebraron en aquellas cuevas. No eran sólo festivales, eran también manifestaciones, pues allí se reunían muchos abertzales y opositores al Régimen, obligados a desplazarse hasta aquellos parajes solitarios, para poder expresar sin peligro, aunque fuera por una sola vez, sus ideas y sus sueños de libertad.

Fuimos de víspera, y pasamos la noche junto al fuego, cantando, charlando, bebiendo. No podíamos dormir: teníamos muchas cosas que hacer antes de que despuntara el día. Pero se nos hizo tarde, y todavía llevábamos en la mochila los panfletos que teníamos que tirar arriba, camino a la cueva. No podíamos volver a Gasteiz con aquello encima. No sabíamos qué decisión tomar; todos estábamos de acuerdo en que había que repartirlos. Así pues, subimos a las rocas que había encima de la cueva, y desde allí los arrojamos. Fue un espectáculo realmente hermoso: sobre los que se habían concentrado abajo volaban cientos de hojas blancas, todos levantaban los brazos, intentaban atrapar alguna. Pero había otra cosa que nos preocupaba tanto como evitar el peligro de dejar los panfletos sin repartir. Bajamos corriendo a la cueva, y llegamos sudando a la entrada de Mairulegorreta. Había mucha gente. En una fila muy larga, todos deseosos de entrar. Tendríamos que quedarnos fuera. Entoces llegó Mikel Laboa, y con él nuestra salvación. No sabíamos quién era, pero, al ver las guitarra que traía,

supusimos que sería un cantante. Y vimos detrás de Mikel, a otros como él. Nos acercamos a ellos, cogimos una de las tablas de la txalaparta, y, dejando un par de centímetros escasos entre los cantantes y nosotros, nos adentramos en la cueva. Conseguimos el mejor sitio, y disfrutamos a tope del concierto. No sé quién cantó aquel día; sólo recuerdo a Mikel. A él y a su guitarrista. Nunca podré olvidar la manera en que las alargadas notas de la guitarra eléctrica (no lo podía creer, ¡aquella guitarra me recordaba a la de uno de mis ídolos, a Hendrix!) y la voz aguda de Mikel llenaban aquella, más que cueva, catedral. Cómo iban de pared en pared hasta llegar a nosotros, y como se nos metían hasta lo más hondo. Nos pusieron la carne de gallina. Aquella voz que se movía sin esfuerzo aparente desde la dulzura hasta la aspereza, desde la melancolía hasta los sentimientos más fuertes, me emocionó y me conquistó para siempre.

Busqué el disco de Mikel y lo escuché sin descanso, lo escuché hasta aprenderlo de memoria, con esa pasión con la que sólo a esa edad se escucha la música. Pasé tardes enteras oyéndolo. En aquella música que escondían las imágenes llenas de vida de Zumeta, encontré un mundo misterioso, repleto de belleza. No entendía las palabras, pero las aprendí de memoria. De algún modo, debo a la curiosidad que en mí despertaron aquellas canciones la pasión por esta lengua en la que escribo; el deseo de gozar plenamente de lo que decía aquella voz capaz de crear en mí la nostalgia de lugares que no conocía. Al menos, así he querido creerlo siempre. No es difícil. Escuchar *Baztan*, por ejemplo, y ¿cómo librarse del deseo de admirar aquellos lugares? Todavía escucho aquel disco, y cuando los ruidos de mi LP castigado por los años intentan oscurecer la voz de Mikel, se apodera de mí la nostalgia del CD. Saldría en seguida a la calle, y entraría en la primera tienda de discos que encontrara abierta. Y cuando leo esa estúpida pregunta que tan a menudo aparece en revistas y demás —¿qué disco llevarías a una isla solitaria?—, si me hicieran esa pregunta, pienso que elegiría el *Bat-Hiru*.

Tendrían que pasar otros tantos años para llegar al tercer encuentro, hasta el día en que actuó en Donostia por primera vez el grupo AC/DC.

Nos juntamos un grupo de amigos, nos metimos en una furgoneta, fuimos hasta Donosti, llegamos al Velódromo, y allí estaba él, Mikel. Nuestra sorpresa fue enorme. ¿Qué hacía allí?

Sin embargo, no resultaba tan extraño, teniendo en cuenta la eterna curiosidad de Mikel, y su deseo ilimitado de conocer cosas nuevas. Pero entonces éramos bastante ingenuos, nos sorprendíamos con facilidad. Para alguien que había ido desde John Cage a Camarón, pasando por Roy Hart y Maurizia, no podían ser gran cosa los hermanos Young.

Fue un concierto aburrido. Los solos sin fin del más joven de los Young nos dejaron destrozados.

El cuarto encuentro, a diferencia de los anteriores, tiene una fecha concreta en mi memoria: noviembre de 1989. He dicho cuarto, pero tal vez debería hablar del primero, pues hasta entonces nunca había estado con Mikel frente a frente.

Hacía tiempo que teníamos la intención de grabar el disco *Txerokee*, y cuando supimos que Mikel iba a presentar su último disco, allí fuimos Mikel Camino y yo, a explicarle nuestro proyecto. El recibimiento no pudo ser mejor. Aceptó nuestra idea, y nos invitó a comer. Sí, nos quedaríamos. La comida se alargó casi hasta el anochecer.

Desde entonces, veo a Mikel a menudo. A Mikel y a Maixol. Y en el amigo he encontrado a un hombre por el que siento tanta admiración como por sus canciones. Nada más, y nada menos.

XABIER MONTOIA , 95

Traducción: Koro Navarro